

BERRIKUNTZA + IKERKETA + OSASUNA EUSKO FUNDAZIOAREN (BIOEF) COVID-19-ren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA

Xedea

Deialdiaren helburua da SARS-CoV-2 birusaren eta COVID-19 gaixotasunaren inguruko ikerketa bultzatzea jarraian adierazitako ikuspuntuetatik: prebentzioa, diagnostikoa, tratamendua, birusa-ren biologiaren eta portaeraren azterketa, seinale klinikoaren azterketa, immunitatearen azterketa, azterketa epidemiologikoak, osasun orokorreko azterketa, COVID-19a duten pazienteen gaixotasun eratorriei buruzko ikerketa soziosanitarioa eta COVID iraunkorraren ikerketa.

Erakunde onuradunak

ZTBES sarean ziurtatutako eragileek lankidetzaproiektuak aurkezteko aukera dute, hainbat erakunderen artean eginak, erakunde onuradunak izan (2. artikuluan honetan aurreikusitakoaren arabera) edo ez izan, beharrezkoak badira eta proiektua garatzeko gai, DLoren 11.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Lankidetzaproiektuen kasuan, lankidetzahitzarmen bat formalizatu beharko da erakunde parte-hartzaile guztien artean, erakunde horien legezko ordezkarien sinadura guztiarekin, proiektuaren egikaritzea bermatzeko eta emaitzak ustiatzeko adostutako baldintzak zehazteko.

Proiektuen ezaugarriak:

- UPV/EHU onuradun izan daiteke "Covid-19-ren ikerketa biomedikoko proiektuak" ildoan. Deialdi honen ondorioetarako, ikerketa biomedikotzat hartzen da oinarrizko ikerketa (gaixotasunera bideratua), ikerketa klinikoa (pazienteari bideratua), ikerketa epidemiologikoa, osasun publikoan eta osasun-zerbitzuetan, bai eta osasuna edo ikerketa biomedikoko prozesuak eta teknologiak hobetzera bideratutako garapen teknologikoa ere.
- Edozein kategoriatan akreditatutako ZTBESko agenteak izango dira onuradunak, eta ezinbesteko baldintza izango da ZTBESen osasun-ikerketako zentroen kategorian akreditatutako agente batek gutxienez parte hartzea.
- Iraupena: 1, 2 edo 3 urte.
- Bi proiektu modalitate daude:
 - a) Sortzen ari diren taldeen sustapena: 1976. urtean edo beranduago jaio den eta deialdi lehiakor bidez finantzatutako proiektuetan ikertzaile nagusi gisa lehenago parte hartu ez duen ikertzaile nagusi bat duten taldeek garatutako proiektuak.
 - b) Ohiko taldeen ikerketa biomedikoko proiektuak: ikertzaile nagusi batek zuzentzen duen ikerketa talde batek garatutako proiektuak; ikertzaile nagusiak atal guztietan ezarritako baldintza orokorrak bete beharko ditu, bestelako baldintza espezifikorik gabe.

Ikertzaile Nagusiak eta Ko-IN-ak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Proiektu bakarra aurkez dezake ikertzaile nagusi gisa.

Ikertaldeko hideak bete beharreko baldintzak:

- UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektua gauzatu bitartean.
- Obra edo zerbitzuagatik kontratatutako ikertzaileek (PIC) ezin izango dute deialdi honetako taldeetan parte hartu.

Bideratutako zenbatekoa: 809.026,80 euro.

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

UPV/EHUa aurkeztutako eskaerak zeharkako kostuen %10a jaso beharko dute aurrekontuan (zuzeneko kostuen gainean kalkulatuta).

Eskaerak aurkezteko era:

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira. Eskaera bakarra aurkeztuko da proiektu bakoitzeko. Proiektu koordinatuen kasuan koordinatzaile gisa jarduten duen erakundea arduratuko da eskaera bidaltzeaz. Ikerketaren arloko Errektoreordetzako langilegoa arduratuko da eskaerak aplikazioaren bidez aurkezteaz UPV/EHU koordinatutako proiektu baten lider gisa doan proiektuen kasuan. Horretarako, ikertzaile nagusiek deialdiko 8.6. artikuluan adierazitako dokumentazio guztia bidali beharko dute convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, hori egiteko **ekainaren 1era arteko** epea izango dutelarik.

Eranskinetako txantiloiak [esteka](#) honetan jaits daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea:

2021ko ekainaren 7ra arte

Informazio gehiago:

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2021/covid_ikerketa_proiektuak/web01-tramite/eu/

BIOEFekin harremanetan jartzeko:

María Pertika E-mail: pertika@bioef.org Tel.: 94 453 61 41	Miriam Amezaga E-mail: miriam@bioef.org Tel.: 94 453 10 33	Olatz Sabas E-mail: olatz@bioef.org Tel.: 94 453 61 43
---	--	---

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08

E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus